# SEANCE DU CONSEIL MUNICIPAL DU 4 AVRIL 2016

# 2016ko APIRILAREN 04ko HERRIKO KONTSEILUA

**Présents / Hor zirenak : 11**

MMES. DUHALDE-ETCHART, ECHEVERTZ, ETCHEVERRY, GARY, OXARANGO.
MM. GASTAMBIDE, BARNECHE, BISCAY, ETCHEGARAY, HERNANDEZ, SOULIGNAC

**Absents excuses / Ezin etorria jakinarazia zutenak : 2**

Mme BARBIER, M. ETCHEBERRY

## VOTE DES TAUX IMPOTS 2016

Monsieur le Maire rappelle à l'assemblée la baisse significative des dotations de l'Etat et indique que pour poursuivre les investissements, il serait nécessaire de prévoir l'augmentation des taux des impôts locaux (taux inchangés depuis 2001). Il propose une augmentation de 2 %.

Le Conseil Municipal**,** avec 9 voix pour et 2 abstentions, a fixé les taux d'imposition pour l'année 2016, comme suit :

## 2016ko ZERGA TASEN BOZKA

Auzapez jaunak batzordeari oroitarazten dio Estatuaren dotazioen beherakada haundia eta seinalatzen du inbestimenduen segitzeko herriko zergen tasak emendatzea beharrezkoa dela (tasak 2011 urteaz geroztik ez dira aldatu). %2-ko goratzea proposatzen du.

Herriko Kontseiluak, 9 bozekin alde eta 2 abstentziorekin, 2016 urteko zerga tasak horrela finkatu ditu :

| Taxes<br>Zergak | | Taux de<br>l'année 2015 | Taux votés<br>en 2016 | Bases<br>2016 | Produits<br>2016 |
|---|---|---|---|---|---|
| | | **2015 urteko tasa** | **2016an bozkatutako tasak** | **2016ko oinarriak** | **2016ko emaitzak** |
| **T.H** | Bizitegi zerga | 15,77 | 16,09 | 958 900 | 154 287 |
| **F.B** | Funts eraikiaren zerga | 7,42 | 7,57 | 716 000 | 54 201 |
| **F.N.B** | Funts ez-eraikiaren zerga | 26,02 | 26,54 | 62 800 | 16 667 |
| **CFE** | Enpresen funts zerga | 20,13 | 20,53 | 206 600 | 42 414 |
| **Total** | | | | | 267 569 |

## AFFECTATION RESULTATS COMMUNE 2015

Monsieur le Maire propose d'affecter le résultat 2015 suit :

## HERRIKO 2015ko EMAITZEN ESLEITZEA

Auzapezak 2015ko emaitza horrela esleitzea proposa du

Résultat d'exploitation au 31/12/2015 : **395 516.03 €**
En couverture du besoin de financement
pour la section d'investissement (1068) : **321 490.07 €**
Résultat reporté en fonctionnement (002) : **72 025.96 €**

## BUDGET PRIMITIF COMMUNE

Le budget s'équilibre en dépenses et recettes :

- En section de fonctionnement : 781 600 €
- En section d'investissement : 947 859 € (incluant les restes à réaliser 2015)

Les principales opérations d'équipement portent principalement sur les travaux de réfection de la voirie (119 500.00 €), sur la rénovation des salles de la maison pour tous (197 000 €) et l'aménagement du fronton d'Apairi (50 000 €). Le remboursement du capital des emprunts et du portage foncier s'élève à 242 681.00 €.

## HERRIKO HASTAPENEKO AURREKONTUA

Aurrekontua orekatua da gastu eta irabazietan :

- Funtzionamendu sailan : 781 600 €
- Inbertsio sailan: 947 859 € (2015ko egitekoak diren gaineratekoak barne)

Ekipamendu operazio nagusiak bide berritze obrak dira (119 500.00 €), denen etxeko gelen berritzea (197 000 €) eta Apairiko frontoiaren antolaketa (50 000 €).

Maileguen kapitalaren eta funts eroste ordezkaritzaren ordainketa 242 681.00 €-koa da.

## BUDGET DOMAINE FUNERAIRE

Le budget du Domaine Funéraire s'équilibre en dépenses et recettes à 3062.00 €. L'excédent d'exploitation 2015, soit 3062.00 € est affecté aux éventuels travaux afférents au cimetière.

## HILERRIKO AURREKONTUA

Hilerriko aurrekontua orekatua da gastu eta irabazi mailan 3062.00 €-tan. 2015ko ustiapen gaineratekoa, hots 3062.00 €, hilerriaren menturazko obrendako atxikia da.

## CONVENTION POUR PORTAGE FONCIER MAISON ELIXALDIA

Monsieur le Maire a rappelé que par acte du 29 avril 2015, l'Etablissement Public Foncier Local Pays Basque a acquis pour le compte de la Commune le bien dénommé « Elixaldia », sis au bourg, cadastré B 1431, 1432, pour une superficie de 1 387 m², pour un montant de 71 401.00 €, majoré des frais d'actes pour 2 053.64 €, soit un montant total TTC de 73 454.64 €.

L'EPFL Pays Basque assure le portage du bien précité pour une durée initiale de quatre années, de 2016 à 2019 ; le taux des frais de portage étant fixé à 1 % HT par an. A cet effet, la convention n° 2 pour portage foncier entre l'EPFL Pays Basque et la Commune a été approuvée par le Conseil Municipal et le Maire a été autorisé à la signer.

## ELIXALDIA ETXEAREN EROSTEKO ORDEZKARITZARENDAKO HITZARMENA

Auzapez jaunak oroitarazi du 2015ko apirilaren 29ko erabakiaren bitartez, Euskal Herriko Tokiko Lurren Erakundeak, Herriarendako, plazan den “Elixaldia” ontasuna erosi duela, B 1431 eta 1432 kadastra zenbakiak dituenak, 1 387 m2-ko eremuarendako, 71 401.00€-rendako, 2 053.64€-ko akta gastuak gehiturik, hots orotara, 73 454.64€, zergak barne.

Euskal Herriko EPFL-k erosi du lau urterendako, 2016tik 2019 arte ; kudeaketa gastuak %1-tan finkatuak dira urteka, zergarik gabe. Horretarako, Euskal Herriko EPFL eta Herriaren arteko bigarren hitzarmena Herriko Kontseiluak onartu du eta auzapezak izenpetzeko baimena ukan du.

## CONVENTION POUR PORTAGE FONCIER TERRAINS ELIXALDIA

Monsieur le Maire a rappelé également que par acte du 4 novembre 2015, l'Etablissement Public Foncier Local Pays Basque a acquis pour le compte de la Commune les terrains sis au bourg, cadastrés B 960,

## ELIXALDIA LURREN EROSTEKO ORDEZKARITZARENDAKO HITZARMENA

Auzapez jaunak oroitarazi du 2015ko azaroaren 4ko erabakiaren bitartez, Euskal Herriko Tokiko Lurren Erakundeak, Herriarendako, plazan den “Elixaldia” lurrak erosi dituela, B 960 eta 1055 kadastra zenbakiak dituenak, 12 388 m2-ko eremuarendako, 295 013.04€-

1055, pour une superficie de 12 388 m², pour un montant de 295 013.04 €, majoré des frais d'actes pour 3 381.02 €, soit un montant total TTC de 298 394.06 €.

L'EPFL Pays Basque assure le portage du bien précité pour une durée initiale de six ans, de 2016 à 2021 ; le taux des frais de portage étant fixé à 1 % HT par an. A cet effet, la convention n° 3 proposée pour portage foncier entre l'EPFL Pays Basque et la Commune a été approuvée par le Conseil Municipal et le Maire a été autorisé à la signer.

rendako, 3 381.02€-ko akta gastuak gehiturik, hots orotara, 298 394.06€, zergak barne.

Euskal Herriko EPFL-k erosi du sei urterendako, 2016tik 2021 arte ; kudeaketa gastuak %1-tan finkatuak dira urteka, zergarik gabe. Horretarako, Euskal Herriko EPFL eta Herriaren arteko hirugarren hitzarmena Herriko Kontseiluak onartu du eta auzapezak izenpetzeko baimena ukan du.

## MATERIEL DE BOULANGERIE – LOCATION VENTE

La Commune a donné à bail commercial à la Société « L'ami des pins », représentée par Madame SAUMONT Valérie, un local pour y exploiter la boulangerie-pâtisserie, et ce, à compter du 15 mars 2015, pour une durée de neuf années. Afin de faciliter le début de l'activité, la Commune a acquis le matériel nécessaire à l'exploitation de ce fonds.

Le projet de contrat location-vente établi à cet effet a été soumis à l'assemblée. Le remboursement du matériel se ferait sur 7 ans avec des mensualités de 642.00 € TTC.

Le Conseil Municipal a approuvé le projet du contrat de location-vente et autorisé le Maire à le signer.

## OKINDEGIKO TRESNERIA – ALOKATZEA SALTZEA

Herriak, merkataritzako alokatze hitzarmen baten bidez, SAUMONT Valérie andereak ordezkatzen duen "L'ami des pins" sozietateari barne bat alokatzen dio okindegi-pastiztegia baliatzeko, 2015ko martxoaren 15tik goiti, bederatzi urtez. Aktibitatearen abiatzea errexteko, Herriak funts horren baliatzeko beharrezkoa den tresneria erosi du.

Horretarako egina izan den alokatze-saltze hitzarmen proiektua batzordeari erakutsia izan zaio. Tresneriaren ordainketa 7 urte barne eginen da hilabetero 642.00 € zergak barne ordainduz.

Herriko Kontseiluak alokatze-saltze hitrarmen proiektua onartu du eta Auzapezari honen sinatzeko baimena eman dio.

## ECHANGE DE TERRAINS ENTRE LA COMMUNE ET M. MARTINON

Suite à la résiliation des baux de fermage des terrains communaux exploités depuis de très nombreuses années par M. MARTINON Martin et la reprise de ces terrains par M. ERRECART Serge, la délimitation de la propriété communale s'est avérée nécessaire.
De plus, afin de mettre les parcelles communales d'un seul tenant, des échanges de terrains entre la Commune et M. MARTINON ont été projetés. Ces échanges se feront sans soulte et les frais seront supportés par la Commune.

Le Conseil Municipal, a approuvé les échanges de terrains entre la Commune et M. MARTINON, aux conditions et modalités définies.

## LUR TRUKAKETA HERRIAREN ETA MARTINON JAUNAREN ARTEAN

MARTINON Martin jaunak duela urte ainitz erabiltzen zituen herriko lurren alokatze hitzarmenen baliogabetzearen ondotik eta ERRECART Martin jaunak lur hauek berriz hartu ondotik, herriko jabegoaren mugatzea beharrezkoa agertu da.
Gainera, herriko lur parteak puska bakar batean biltzeko, lur trukaketak pentsatuak izan dira Herria eta MARTINON jaunaren artean. Trukaketa hauek diru gehigarririk gabe eginen dira eta gastuak Herriak beregain hartuko ditu.

Herriko Kontseiluak Herriaren eta MARTINON jaunaren arteko lur trukaketak onartu ditu, finkatutako baldintza eta moldeen arabera.

**TERRAINS PRECEDEMMENT LOUES A M. ETCHEMENDY**

Ces terrains, situés au lieu-dit « Lur Berry », d'une superficie de 2 ha 04 a 70, en nature de prairie, ont été repris par Mme AYME Julia, installée en qualité de jeune agriculteur.

**LEHEN ETCHEMENDY jaunari ALOKATUAK ZIREN LURRAK**

Lur hauek, "Lur Berry" izeneko lekuan zirenak, 2 ha 04 a 70 hedadurakoak, Julia AYME andereak berriz hartu ditu, laborari gisa instalatua.

Fait à AYHERRE, AIHERRAN egina, le 12 avril 2016

Le Maire, Auzapeza,

A. GASTAMBIDE